

Agur Iñaki!

drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 180. alea 2010eko ekaina



A, ze sari puskak!

2010eko Postal lehiaketa

Euskal Birusa

247 postakutxa

48260 Ermua



Ermuko eguneroko albisteak eta hauek komentatzeko aukera

Ermuko agenda kultural osoa

Hileroko lehiaketa: Sari bereziak!

Drogeteniturre aldizkaria, pdf-an

Inkesta

*Ermutik eta sarean
euskaraz ere bagara!*



www.euskalbirusa.org

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)

247 posta-kutxa
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu eta
Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Iñaki Arregi.

LAGUNTZAILEAK:

Patxi López, Ioritz Rasero,
Asier Ibaibarriaga eta
Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Ioritz Rasero, Alazne
Aiestaran, Sallabenteko jai
batzordea, Debarrena,
Artarrai, Jon Uribe, Asier
Ibaibarriaga, Igone Amesti,
IMH, Ainhoa Lasuen eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Jon Arano, Irune Martínez
eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Papar eta sabel aldeko lumen zuritasunean, artistiko egiten dute bere tantatxo ilunak. Habia zuhaitzen gorengo adarretan egiten du egurtxo, txori-luma, artile edo belarra buztinarekin nahastuz eta gogortuz, katilu forma emanez. Hazi eta zomorrotxoak jate kontuetan atzean geratu ez arren, sagarretara joateko toke itzela dauka. Arbola batetik bestera hegan doala, 'karrag', haren karraskada behin entzunez gero, erraz ezagutzen da. Gurean ez da batere ugaria: bikote bat edo bi altuena; inon topatzekotan Ureta, Hanbre edo Eitzaga inguruan. Neure bizi guztian ibili naiz txoritan eta, txantxangorria 200 bat bider ikusteko aukera izan badut, durdulak ez ziren dozena erdira ailegatuko.

Durdula Zorzal charlo

Turdus viscivorus



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	BOTEPRONTOA16
Sallabenteko jai batzordea	Mari Carmen Mugika
ERMUAN ZER?5	KIROLZALE17
Tribial feminista	Javi Pérez
MALLABIAN ZER?6-7	IRITZIA18
UEMA eguna	Medellinen egun bat
ERREPORTAJEA8-9	SALEROSKETAK19
Merkatu plaza	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....10-15	ANTZINAKOAK.....20
Irene Ramos	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
IÑAKI ARREGI. OMENALDIA	KALEKO INKESTA21
Bizitza-argazki bilduma..... 11-14	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22
	Santixau aurrekoen agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Sallabenteko jai batzordea

Hogei urte baino gehiago daramate euren auzoko jaietan etengabe lanean: aurrekontuak eskatu, ekintzak lotu, taldea koordinatu, barran lan egin... Hala ere, eurek diotenez, 3 peoratan bizi dira denak eta horrek lana errazten die.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Taldea duela urte mordoia sortu zen eta jaiak frontoian eta ermita inguruan ospatzen genituen. Hala ere, orain dela 22 urte, gutxi gora behera, San Lorenzo eskolako guraso-elkarteak jaiak ospatzeko eskolako lokalak lagatzea erabaki zuen. Momentu horretan gaur egun martxan dagoen batzordea eratu zen eta bi zatitan banatzen da: aisialdia eta kirolak.

- Zenbat kide zarete?

Hogeita bi kide gara, eta guztien artean neska bakarra dago. Gorabeherak egon dira taldekide kopuruan: hasieran 34 kide ginen eta urte batzuetan 18 izatera heldu gara, esaterako. Gurekin lanean hasi eta lagatzea librea da.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Jaiak antolatzea. Horretarako, daukagun diru kopurua kontutan izatea ezinbestekoa da.



- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Otsaila inguruan hasten gara jaiak prestatzen eta irailera arte egoten gara lanean, momentu horretan jaien balorazioa eta hobetu beharreko gauzak aztertzen direlako. Hasieran 15 egunetik behin batzen gara eta jaiak hurbiltzen direnean ia ostiralero bilerak egin behar izaten ditugu. Jaiak heltzen direnean, oso nekagarria da, egun osoan lanean egoten garelako. Era berean, San Lorenzo eskolan biltzen gara, larunbatetan beharrezkoa bada. Bestela, Villa de Ermua Hoteleko batzar-aretoan edo Miguel de Unamuno gizarte-etxean egiten ditugu batzarrak, ez dugu arazorik.

- Jarduera berririk prestatu duzue?

Duela 6 urte Erdi-Aroko azoka egin genuen estreinakoz. Hori antolatzeko sekulako dirutza behar da eta horregatik, jai egitarauan publizitatea ipintzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Aurten gainera, Udalak ematen digun diru-laguntzak behera egingo du eta ekintza ezberdinak aztertu behar izan ditugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Jaiak hasi aurretik kartelak ipintzen ditugu, jendea animatzeko, nahiz eta hemen denok elkar ezagutzen dugun. Herrian zeuden auzoko jai guztietatik Sallabentekoak bakarrik geratzen dira. Mila auzo-lagun bizi gara hemen eta jende gehiagok parte hartu beharko luke, gazteek batez ere, eurak direlako datozen urteetan lekukoa hartu beharko dutenak.

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA CERYECERIA
NHECH

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78

Tribial feminista editatzen parte hartu du Emakumearen Etxeak

Tribial feminista, edo berdintasunerako jolasak, 1.200 galdera ditu eta bere helburua, besteak beste, emakumeek jakintza eta bizitzaren hainbat arlotan egin dituzten ekarpenak aitortzea da.

Ermua, Arrasate, Bausauri, Ondarroa eta Zierbenako udaletako eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Berdintasun sailek Tribial Feminista deritzon jolasa sortu dute. Aurkezpena maiatzean egin zen eta guztira 3.000 ale kaleratu dira. Horietatik 250 ale, Ermuko Emakumearen Etxeak jaso ditu.

Guztira 1.200 galdera ditu Tribialak (200 txartel eta 6 galdera txartel bakoitzean) eta lantzen diren gaiak Historia, Arte eta Literatura, Geografia, Ikuskizunak eta Zientzia dira. Galdera horien bitartez, bultzatzaileen arabera, begi bistan geratzen da emakumeek eremu horietan egindako ekarpenak.

“Protagonistak emakumeak dira: kirolariak, intelektualak, artistak, ikerlariak, feministak eta, oro har, menderaldi maskulinoa zailantzen jartzen ausartu direnak”, diote. Jolasaren helburua, beraz, *“historiaren eta kulturaren ikuspuntu androzentrikoa desmuntatzea da, ikuspuntu horren*

bidez gizonak baitira diziplina guztien erdigune eta neurria”. Bestetik, emakumeek jakintza eta bizitzaren hainbat arlotan egin dituzten ekarpenak aitortzea du xede joko honek eta baita,

feminismoak teoria politiko gisa eta XX. mendeko gizarte mugimendu funtsezko gisa egin duen ibilbide luzea erakustea ere.

Salgai

Jokoa prestatzen ibili diren udalerrri guztiek galderak proposatu dituzte eta azken emaitza lortzeko laguntza eskaini dute. Ermuarekin zerikusia duten hurrengo gaien inguruko galderak agertzen dira: Berdintasunaren Kontseilua, Emakumeen Topalekua, emakume-

ak hautagai-zerrendetan eta raketistak, besteak beste.

Ermuan jasotako aleetatik 50 euskara hutsean dira eta gainontzekoak elebidunak, eta herriko ikastetxeetan eta kultur elkarteetan banatu dira batez ere. Jokoa etxean izan nahi dutenek Udal Liburutegira jo beharko dute (bi ale daudelako bertan mailegurako). Maribel liburu-dendan, berriz, Tribiala salgai dago, 25 euroren truke (ale kopuru mugatua).

Dorleta Vidal



Galdera batzuk:

1. XV. mendeko emakume bertsolariak, zer zirela esaten zen?
2. Zer urtetan erabaki zen neskak eta mutilak gela berezietan ez egotea Espainiako eskoletan?
3. Zer urtetan hasi ziren ordaintzen sari bera Wimbledoneko tenis torneoko gizon eta emakume irabazleei?
4. Artista bat istripu baten osteko suspertze-aldian hasi zen margotzen, eta Mexikoko margolari ospetsuen bihurtu zen. Nor da? (Erantzunak 10. orrian)



0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Iñaki Arregi gogoratuz, egun goibela argi bihurtu zan UEMAREN izenien

Egun goibela, bustixe eta zarratue jaiki zan ekainaren 12xe. Goibeltasun eta iluntasun hori argi bihurtu zan, baina, Mallabiko frontoien Xabier Mendigureni eta Iñaki Arregiri egin jakuen aitortza eta omenaldi xumearekin. Iñaki Arregi, Kuarri, ixte hasieratik UEMako koordinatzaile eta 'arima' izan zana aste horretan bertan, martitzena hilaren 8xen hil zan. Egueneko hitzaldixe suspendidute, zapatuko ospakizunek be bertan behera iztekotan egon ziren, baina aurrera jarraitzie ebatzi eben egune Iñakiri omenaldi bihurtuz. Jai haundi hau Mallabixen izetiek be, ilusino haundixe egitten ei eutsen Iñakiri kontizu, familiarekin bertan bizi izan zan-eta.

Eberdiko 12xetan Xabier Mendigureni aitortza egin jakon probalekuen, hamabi urtez Euskararen Kontseiluko idazkari nagusi izandakuek hunkiturik jaso eban Uemako lehendakari Jon Bollarrek emondako albume. Ordu bata aldien txalapartaren ttakun hotsaz hasi zan han batu zirenen lagun eta euskaltzaletasunien erreferente izan zan Iñakiren ohorezko ekitaldixe. Manu Riañok, gitarrie eskuen, kantu bat eskaini eutsen, Xabier Mendigurenen hitz batzuk jarraitu ebien,



Karmele Aierberen 'hi, Iñaki, aspaldi ezagutu genian elkar' Iñakirekiko elkarrizketa, Xabier Amurizaren bertso hunkitua eta ttakun, ttakun, ttakun... poemari jarraiki. Kontxi Gabantxok UEMAREN hastape-nak gogoratu zittun, Iñakiren lana gorai patuz Euskeriaren aldeko "militante fin eta eredugarria" izandakue gogoratuz, Mallabiko Jasokundeko neske 'Goizian argi hastian' eskeini eutsien, UEMako lehendakari Jon Bollarrek gutuntxo bat irakurri eta Lukenek eta Unaik, txapelak amari eta emazteari emonda ohorezko agurre dantzatu eutsien. Omenaldi sentitue eta hunkigarrixen izan zan.

Bazkaltzen 250 bat lagun

batu ziren frontoien. Pasta ensaladie eta bildotsa nagusixentzat eta makarroiek eta hanburgesie umientzat, finfin zerbitzatu ebien bazkari-xe Jasokunde eta Mendibil abesbatzetako kantari-xek. Bazkal ostien, umientzat ipuin kontalarixe egon zan eta ondoren Jasokundeko neskek eta Manu, Iban, Oskar eta Jonek kantaldixe ipini ebien martxan. Orrixek banatu ziren eta gustora, giro edarrien kantuen eta dantzaz egon zan jente guztixe, "kalian goooooora, kalia be-eeera, kalia gora zezena ai ai ai ai..." eta goooooora, eta beeeera.

Erromerixa jendetsue euripien

Baina ez zan hor amaittu

egune, umien jolasak eskolako frontoian aterpien egin ziren arren, eta herri arteko xiba jokoak eta kaleko ekintzak bertan behera itxi ziren arren, plazan jarraitu eban erromerixiek. Erlaxi taldie jo eban euri sirimiri ganorabakuek jarraitzen eban arren. Mallabittarrak normalien juergistak gara, baina kanpotarrak be ez ziren atzien geratzen. Ume eta guzti, han jarraitzen eben Oiartzungo, Otxandixoko, Izurtzako, Azpeitxiko, Etxebarriko eta auskalo nungo jentiek, etxera juteko gogo gitxikin. Gabien eta egune borobiltzeko, Damu Dot talde zaldibartar-mallabittarrak euren azkenengo diskue aurkeztu ebien.

Eneritz Aranburu

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

ZELAI II.A ALKATEGAI EAJTIK

Pasa dan maiatzaren 28xen Mallabiko Txoko-Batzokixen ospatutako batzarrien, aho batez hautatu eben 2011-n egingo diren udal hauteskundeetarako zerrendaburu Jesus Gisasola, Zelai II.a. Ikasketaz eta lanbidez albaitarixe, aizkora txapelketetan eta erakustaldiek eitten ibili izan da Euskal Herri osuen ziher. Mendibil abesbatzeko kide be bada.

JASOKUNDE ETA MENDIBIL ABESBATZAK ORIXON IZANGO DIRA

Orixoko Salatxo Abesbatzak gonbidatute, ekainaren 25ien arratsaldeko 20:00etan kontzertue emongo dabe Jasokunde-ko eta Mendibileko kantarixek. Maiatzaren 22xen Kultur hamabostaldiko egitarauaren barruen izan zan gurien Salatxo eta Orixoko San Pedro jaixetako ekittaldi hau izango da ordaine. Neskek, 'Oh Happy Day'-ko kantarik ezagun eta martxosuenak abestuko dabiez. Mendibil abesbatzak be bere ekittalditxue eskeiniko dau Mallabin eskeini zittun kantuek abestute.

Arrakasta Berrizen

Ekainaren 18xen arrakasta itzela lortu eben Mallebiko neskek Berrizko Kultur Etxien. Zati bittan kantatu ebiezan 'Oh Happy Day' programarako prestatu zittuezan kantuek. Kantu lasai eta melodikuekin hasi ebien kontzertue, baltzez jantzitte baina kantu bakotxari bere jantzi ezaugarrixe emonda: ointxe pañelo haundixe, ointxe gona koloredune, gero amantalak... Bigarren zatixen soineko distiratsuek jantzitte abesti diskotekero eta martxosuaguek eskeini zittuezan. Gustora kantatu ebien neskek "epaimaharen presiñorik barik" eta bertaratu zirenak be asko disfrutatu ebien.

TENIS TXAPELKETAN ANDOAINDAR BAT IRABAZLE

Iñaki Artano tenislari andoaindarrak irabazi dau 6-2,2-6,6-2ko emaitzarekin Iker Egia zaldibartarraren kontra tenis txapelketako finala. Semifinaletan, hurrenez hurren, Lur eibartarra eta Iker Araiztegi ermuarra kanporatu ebiezan.

VII. BIHARKO IZARRAK TXAPELKETAN ELEZKANO ETA MERINO II.A GARAILE

Ekainaren 11an jokatu zan finaleko partidue, Elezkanok eta Merinok osatuteko bikotiek irabazi eban Mendizabal eta Landabururen kontra 22-17 egin ondoren. Atzelarixek fin arritu ziren, Merino batez be eta halan, txapelketako pelotari onena izendatue izan zan.

Eneritz Aranburu



OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan zabalitzen dugu*

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)
Olatz García Arregui
943 17 04 04

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Merkatu plaza, 25 urtez ermuarren lagun

Ekainaren 26an, Ermuko Merkatu plazak 25 urte beteko ditu. Hainbat dira urte hauetan egondako aldaketak, bai eraikinean (1996an kanpotik margotu zen), zein erosleen ohituretan, eta datozen urteetan ere, bilakaeraren alde lan egingo dute dendariak. Helburua, gazteak merkatu plazara hurbil daitezen.

“Inauguratu nindutenean neu izan nintzen modernotasuna Ermura etortzearen erakusgarri”. Horrela hasten da Merkatu Plazako Dendari Elkarreak euren eraikinarean sorreraren 25. urteurrena ospatzeko prestatu duen idatzia. Dendariak diotenez, 1985. urtean Orbe Kardinalaren plazan zegoen merkatuak ez zituen garai horretarako gutxieneko baldintzak betetzen ezta zerbitzuak eskaintzen ere. Galera horiek betetzeko, Diputazio kaleko egungo merkatu plaza jaio zen.

“Eraiki zenean, plaza hau oso berritzaile eta modernoa zen, haize egokitua eta kale-fakzioa zuen, esaterako, eta gainera oso koloretsua zen. Kanpoko lagunak bisitan etortzen zirenean harrituta geratzen ziren -diote Maite Moreno eta Maite Gorrotxategi dendariak-. Garaiko gai-

nontzeko merkatuak ohikoak ziren, postuek pertsiana erdia bakarrik izaten zuten, esaterako, eta honek ez zuen horrekin zerikusirik”.

Orbe Kardinalako plaza itxi eta desagertu egin zen, baina hala ere herritar askok horren oroitzapenak dituzte. Oroitzapen horiek gaur egungo dendariekin zerikusia dute, oraindik ere merkatu zaharretik etorritako dendariak geratzen direlako: Lazkano harategiko Milagos, Gerrickabeitia arrautzak eta urdaitegiatiko Manoli eta Eugenia, hain zuzen ere.

“Ermuan merkatura joateko ohitura handia zegoen eta Orbe Kardinalaren plazatik hona etorri ginenean, jendeak etortzen jarraitu zuen -diote dendariak-. Baina asko kostatzen zaigu gazteei heltzea. Hauek saltokigune handietara jotzen du-



1985. urtea

telako. Hemen denetarik aurkitu daiteke, kalitate-prezio erlazio ezin hobean, tratu pertsonalizatua...”. Hala ere, egunero erosketak plazan egiten dituzten nagusie eskerrak eman nahi dizkiete eta euren pentsatzen, orain dela 3 urte, esaterako, igogailua ipini zen.

Aldaketak

Merkatu plazan 60 postu daude eta gaur egun horietako hainbat hutsik daude, beheko solairuan batez ere, *“horrek itxura txarra ematen du, baina halabeharrez gertatzen joan da. Udaleko*

lizentziak 1985ean eman ziren eta aurten bukatzen dira. Hori dela eta dendari batzuek merkatutik kanpo denda ipintzea erabaki dute. Beste batzuei, berriz, jubilatze garaia heldu zaie”, diote.

Krisi garaia dela eta, udalarekin hitzarmena sinatu dute merkatariek eta honi esker 5 urtez luzatuko dituzte lizentziak. Epe hori agortutakoan lizentzien lehiaketara egingo da eta ustiatzeko emakidak negoziatu beharko dira berriro ere, 20, 25 edo 30 urtetarako.

Krisi garaia dela eta, bost urtez luzatu dira postuen lizentziak



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

943172665 ERMUA

B A G T R S Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

“Begira zer dagoen barruan, sartu!”

Aurretik duten bidea ikusita, merkataritzari bultzada emateko hainbat aldaketa egingo dituzte merkatariek. Prozesua astiro doan arren, goiko postu batzuk beheko solairura bajatuko dira, beheko solairua beteta egon dadin eta jende nagusiari sarbidea errazteko berriro ere. *“Behera bajatzeak diru kostu itzela du, horregatik, erretiroa gertu ikusten dutenek goiko solairuan geratzea erabaki dute”*, diote dendariak. Horretaz gain, fatxadan lonak ipiniko dira (beheko argazkian ikus daitezke). *“Merkatu plaza porlanezko kuboa da, erakus-*

leiho barik - diote bi dendari hauek-, eta lona hauekin, dendak kalera aterako dira: Begira zer dagoen barruan, sartu!, esango dute lonek”.

Euren buruetan beste proiektu batzuk ere bazera-biltzaten, baina baztertu behar izan dituzte: “Muelletan janari-denda gunea egitea pentsatu genuen eta proiektua eskatu zen. Ikaragarri polita zen baina oso garestia eta alde batera laga behar izan dugu eta daukagunarekin jarraitu. Hala ere, ez gara hilko, gauza berriak egingo ditugu eta merkatu plazak aurrera jarraituko du”.

Dorleta Vidal



Mayte Moreno eta Maite Gorrotxategi, dendariak eta urteurrenaren antolatzaileak.

- Zenbat denbora daramazue 25 urteurrenerako ekimenak prestatzen?

Martxoa inguruan hasi ginen zer nahi genuen pentsatzen eta bi hilabetez, gutxi gora behera, horretan lanean egon gara: Ion Fizen erakusketa, ludoteka, nekazaritza eta artisau-azoka...

- Zenbat lagun artean prestatu dituzue ekintzak?

Batez ere gu biok ibili gara lanean eta beste bizpahiru laguntzaile izan ditugu.

- Dendari guztiek hartuko dute parte?

Merkatu Plazako Merkatarien Elkarteak kide ez diren

dendariei egitaraua aurkeztu diegu eta parte hartzerari animatzen ditugu. Egiten ari garen lana guztiontzat izango da eta ez bakarrik bazkide direnentzat, baina...

- Diru-laguntzarik jasozuzue?

Momentuz ez. Eusko Jaur-laritzako ‘Merkagune’ programaren diru-laguntzak eskatuko ditugu bukatutakoan eta Udalak diru-laguntza ematea aurreikusten dugu baita ere, baina oraindik ez dakigu ezer. Horregatik, beharrezkoa den dirua Merkatu Plazako Dendari Elkarteak aurreratu du.



Etorkizunean

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA KALONIAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua, plater konbinatuak, bokatak, pintxoak, kazolak...

*Bazkari eta afariak parrillan (enkarguz): txuletak, arraina...

Enkarguak: **943 174 952**
(asteartetan itxita)

IAKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1

943 17 60 52

IZOTZ KONJELATUAK

Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

SABEL-DANTZA IKASTAROA DOHAINIK

Berbalagunek sabel-dantza ikastaroa antolatu du ekainaren 24 eta uztailaren 8rako. Ikastaroa Lobianon izango da, 19.00etatik 21.00era, eta dohainekoa da. Sabel-dantzak gerri eta inguruko giharrak trinkotzen ditu, umeak izango eta izan berri dituztenentzat onuragarria da, pelbis ingurua sendotzen laguntzen duela, eta autoestimua indartzen ere laguntzen du. Parte hartzeko 639414205 telefonora deitu edo ermua_berba@aek.org helbidera mezua bidali.

www.euskalbirusa.org GUNEKO SARIAK

Euskal Birusa Kultur Elkarteko webgunean sariak banatzen ditugu hilero. Ekaineko saria, Krabi ile-apaindegian estetika saioa izango da. Parte hartu nahi dutenek, www.euskalbirusa.org webgunera sartu eta maiatzean kaleratutako Drogeteniturriri buruzko galderari erantzuna eman beharko diote uztailaren 2a baino lehen.

IRENE PÉREZ, GARAILU ALTUERA-JAUZIAN

Anaitasuna ikastolako Irene Pérezek lehen postua eskuratu zuen maiatzean ospatu zen Euskadiko eskolarteko txapelketan. Irenek 1,48 metroko jauzia egin zuen. Taldeetan, Anaitasunak 5. postua lortu zuen. Leire Gorritategik, berriz, bronzeko domina lortu zuen jabalina jaurtiketan.

Esperientzia Eskolako matrikula zabalik

Debarrenen Esperientzia Eskolako matrikula epea ekainaren 1etik urriaren 8ra arte egongo da zabalik. Debegeak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin sorturiko proiektua da eta ikasturtean hainbat eduki landuko dira: gizarte-gaitasunen garapena, komunikazio gaitasunen trebezia, osasun fisiko eta mentalaren hobetzea, erlaxazio teknikak, informatika, psikologia, filosofia, Debarrenen kultura eta ohiturak... Ikastaro hauek adituek eskainiko dituzte, iraupen desberdina izango duten ponentzien bitartez, eta ikasleek ez dute azterketarik egin behar. Eskolak aurtengo urrian hasi eta 2011ren ekainean bukatuko dira eta ikasturte osoaren prezioa 200 eurokoa da. Izena emateko ez da titulaziorik behar, baina ezinbestekoa da 50 urte baino gehiago izatea. Informazio gehiago jasotzeko Debarrenen telefono zenbakietara deitu beharko da: 943224146 edo 626773676. (Argazkian, 2009-2010 ikasturteko ikasleak euren diplomekin, maiatzaren 21ean ospatutako ekitaldiaren ondoren).

**Uztailak 17, Urko 69tan ezetz!**

Artarrai Mendi Taldeak 'Urko-69' igoera neurtua egingo du Santixauetako aurreko zapa-tuan, uztailaren 17an. Proba honen helburua Urko mendira 69 minututan igotzea da, eta lehenago edo beranduago heltzen direnak deskalifikatu egingo dira. Igoeran, jakina, mendizaleek ezin izango dute erlojurik erabili. Antolatzaileek Patxi plazan hartuko dute denbora eta Urko puntan partaideak noiz sartuko diren zain egongo dira. 69 minutuko markan inor sartuko ez balitz, goitik gertuen ibili denak irabaziko du. Izen ematea egunean bertan egingo da, 10.00etan, eta euro bat ordaindu beharko da. Iaz ipini zen martxan ekimen hau estreina-koz eta 68 lagunek hartu zuten parte. Irabazlea Jokin Uriarte izan zen (argazkian), 69 minutu eta 27 segundoko denbora egin eta gero, eta txapela eta 68 euroekin betetako itsulapikoa jaso zuen. Bere aurretik 14 lagun sartu ziren eta deskalifikatu egin zituzten.

**Uni Eibar-Ermuko ikasleak, OpenStreetMaps-en**

Ongarai auzoan dagoen Uni Eibar-Ermuko ikasketa zentroa, herriko puntu garrantzitsuak Interneteko Open Street Maps programara igotzeko prozesuan dago. "UniEncounter jardunaldiak antolatzerakoan, informatikaren inguruko gai ezberdinak jorratzen dituzten zenbait enpresarekin kontaktuan jarri ginen -dio Gorka Guenaga irakasleak-, eta horietako batek, OpenStreetMaps-ek (OSM), hitzaldia ematea proposatu zigun. Beraiekin hitz egin ondoren kanpo ekimen bat egin nahi genuela adierazi genien eta Ermua mapeatu". Horri esker, nahi duenak herriko puntu ezberdinetako datuak Interneten zehaztu ahal izango ditu, guztion eskura egon ahal izateko. OpenStreetMaps software librearekin lotuta dago. Informazio gehiago jasotzeko, www.iesunibhi.com webgunera jo daiteke.

✱ Tribial Feministaren erantzunak:

1) Prostitutak. 2) 1970ean. 3) 2007. urtean. 4) Frida Kahlo.

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA


ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Infreñu Taberna

Kardena Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



Agur, Jñaki!

Ekainaren San Jñaki Arregik agur esan zigun betiko. Drogetenitturri eta Euskal Birusa Elkarteko sortzaile eta hasierako urte haietako bultzatzaile ahaztezina. Sasoi bateko Ermuko Adalbatzako zinegotzi, 'El Correo'ko korrespontsala... eta gaur egun Markinan bizi eta **UEMA**, Adalerra Euskaldunen Mankomunitateko koordinatzaile izan da honen sorreratik, 1992an.

Gure esker onaren adierazle bizitza-argazki bilduma hau eta bere omenez gertukoena idatzitakoak.





IÑAKI, ANAIA ETA LAGUNA.

Aupa Iñaki! Markiñako ekitaldixaren amaieran, "Drogetenitturri" rako zeezer idatzi bihar ete neban galdetu ostenian, hasiera-hasieratik ezetz esan najuan, ezin izango nebala, ez nekala indar nahikorik. Gañera badakik beti izan nazela torpetxua idazteko orduan, eta momentuotan gatx, oso gatx eitzen jatan idaztia. Baiña, tira, higaitxik edozer!

Txiki-txikitxan, zinetik (infantiletik) urten eta, pelikuliari jarraipena emoteko, Artarrai aldera juaten giñuasen. Plastikozko pistola erosteko nahikua dirurik ez eta, hantxe hi, ekan diru apurra poltsikotik etarutzen niri zorixoneko pistola erosteko.

ANAIA? LAGUNA? BIXAK BATERA.

Gaztetan bizikletak hartu eta Zornotzarainok. Haruzkuan, Aitxixo gaiña hartu orduko itxota neuan. Buelta guztixa ein bihar izan najuan hire atzeko erroberiarri pega-pega einda, hai-xetik babestuta; hik baten be ez ostan eskatu errelebua, tinko anaixari laguntzen etxera heldu arte.

ANAIA? LAGUNA? BIXAK BATERA.

Nagusitxan, eta politikari helduta, eztabaida batzuk euki jitzuauz. Baten baiño gehixagotan ez gara conforme gelditxu, batek A bestiak Z, baiña hire gauzak esateko moruak (ahotsa altxau barik, baiña hirean tinko) lortu jok beti hasarretu barik amaitzia.


ANAIA? LAGUNA? BIXAK BATERA.

Segidu ezkerro liburu bat idazteko beste euko neukek.

Gure artian sekula eztoz eon 'maitxia', 'laxtana', 'politxa' eta holakorik. Baten batek pentsau leikek oso hotzak gariala. Oker dabixak! Guretako nahikua zuan begixetara alkarri beitzia, edo sorbaldan eskua pausatzia. Modu asko daoaz ahotik urtetzen ez dana esateko. Anaixak gaitxuk, aitxan hazitxik eta aman sabeletik etorri garialako; baiña hi beti eongo haz nigan ez horregaitxik bakarrik, lagun haundixa, lagun-miña, benetako laguna izan hazelako baizik.

Eskerrik asko danagaitxik, Iñaki!

Fernando Arregi





Iñaki,

Bizitzaren zure azken etapa hau elkarrekin igaro dogu, iragana gogoratuz, orainaz hausnartuz, bizitzaz gogoeta eginez... asko da berba egin doguna.

Esan biharrekuak esanda dagoz, bizi bihar izandakua bizita dago, eta zuk emandakua daukagu: elkarrekin igarotako gaztetako urtiak, konpromisuak, une onak eta ez hain onak, barriak, kantak ("A la molina no voy más, porque echan azotes sin cesar..."), batzarrak, afarixak... Eta nola ez ba! Era guztietako eztabaidak: politikuak zein kulturalak, euskarari eta etengabeko iraultzari buruzkuak, feminismoa eta beste hamaika gairen inguruak...

Azkenian, zuk emon eta laga doskuzun oroitzapen goxo eta sendua da orain daukaguna. Danongan egongo da betiko zure zatitxo bat eta badakigu, zeuk pe geurea dan best bat eruan dozula zeurekin, hauxe dalako, azken finean, harremanaren, lagun izatiaren eta bizitzaren onena.

Orain zure familixiarekin egon nahi dogu: Elenarekin, Txominekin eta Graxirekin.

Patxo haundi-haundixa, maite zaitxugu, Iñaki.

Ermuko zure lagunak

Iñakiri

Joan egin zaigu, baina ez digu alde egin, gurekin jarraitzen baitu, pentsamenduan ñirñir, bihotzean taupadaka, oraingotan, geroxeagoan eta etorkizunean.

Joan egin zaigu giza lasaia, gizon intelijentea, pertsona konprometitua, lagun aparta, adiskide sakona, maitale zintzoa, aita goxoa. Seme maitea, seme, anai, gizaseme unibertsala.

Joan egin zaigu. Hala ere, etorkizunean gurekin jarraituko du herri honen nortasunaren defentsan, Euskal Herri honen nortasunaren defentsa izan baitu aspaldian Iñakik bere helburuetako minena, sentikorrena, preziatuena eta ekinaren ekinez, hankak lurrean zituela, bere esku handi hezurtuak zabaldu zituen lau haizetara: "Izan zaitetze gurekin lagun, gurekin solidario, gurekin gizalege, gurekin euskaldun".

Ondo zekien gure Iñakik, mundu honetan mirariak, milagroak hutsaren hurreneko kantitatean agertzen direla eta ekinaren ekinez, helburuak lortu behar direla eguneroko bizitzan eta hortan ziharduen tinko, beste helburu eta ilusio askoren artean, gizaki bizidunok egiten dugun moduan.

"Ahaztuezina ixango haiz Iñaki, hirekin ikasi juagu lasaitasuna eta apaltasunaren balixua. Gure gizarte harro honetan, ez dok nahi izan mamu harroputz eta lortuezinezko horien dindiliña. Nahiago ixan dok eguneroko bizitzan esperantza sortu modu bakarraz: Ezina ekinez egina".

Egon hadi ziur, hire moduko asko sortuko dira enbor beretik.

Tomas Trifol





Euskal Birusa Elkartea, Drogeteniturrri aldizkaria, San Martin Azoka, Hartza Eguna... Horiek guztiek 20 urteak eginak dituzte Ermuan. 20 urte dira, beraz, Ermuko euskaldunoi ekimen horien bitartez edo inguruan euskaraz bizitzeko aukerak biderkatzen zaizkigula. Handik gutxira etorriko ziren, inauterietako antzezpenak, Olentzero emakumezkoa, euskaldunon afari eta txangoak, Juanita Ibaibarriaga Literatur Saria, Udako Postal Lehiaketa, Liburu eta Disko Azoka, Ahozko Ondarearen bilketa, kultur ekitaldi piloa... Azken urteotakoak dira Ermuan Kantuan, Santixauetako Txikurixa eta elkar-tearen webgunea... eta segurua da ekimen berriak sortuko direna. KATAIA EZ DA ETEN, kontrara, katebegi berriak lotzen zaizkio aldiro-aldi.

Hauexek dira, besteak beste, Iñakik Ermuan ereindako hazia-ren fruituak. Iñakik berak bakarrik ez, jakina, lan-taldearen garrantzia oso argi izan zuen-eta, beti, baina hori bezain argi zituen elkar-tearen eta ekimeneren norabidea, nolakotasuna, aukera eta batez ere, behar izana. Horrek indar berezia ematen zion Iñakiri eta indar hori banatzen saiatzen zen, konfiantza, adore eta ilusio bihurtuta. Euskal Birusa Elkartea, euskarra sustatzeko jaio zena, askoren elkartea izan da beti, baina oso zaila egiten zaigu sorreran parte hartu genuenoi, hura Iñakiren hauspo eta bultzada barik imajinatzea.

Horregatik gaude gaur hemen, horren guztiaren testigantza zuei emateko. Ermutik Mallabira eta Mallabitik Markinara bizitzera etorrita, EKBN edo UEMA sustatzen buru-belarri ezagutu duzenok, ezagutu duzen Iñaki zoragarri hori, guretzako noraino izan den handia jakin dezazuen eta kontartzeko zenbaterainoko aztarna laga duen Ermuan eta Ermuko euskaldunongan.

Horretarako eta gure esker ona eta harrotasuna erakusteko. Esker ona bizitzari, Iñakirekin ilusio, proiektu eta momentu zoragarri asko konpartitzeko aukera emateagatik, eta harrotasuna, Iñakiren ametsetako batera hurbiltzen ari garelako: Ermua eta Euskal Herri euskaldunarena.

Joan lasai Iñaki, zuk hauspotu zenuen suak oraindik berotzen du amaren etxea.



Maite zaituztegu Elena, Graxi, Txomin, Mari Luz...
Maite zaitugu Iñaki, eskerrik asko zuri, lagun handia.

Euskal Birusa Elkartea Kulturalea



DROGETENITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria



"Hemen gaude"

Hala ere, ez dakigu hurrengoan "Hemen gaude" garen". Hara, orain dela 13 urte pasatxo argia ikusi zuen lehen Drogeteniturrriko editoreleak Euskal Birusak idatzi zuen izenburua. Aldizkari bat maiztasunez ateratzeak sekulako bertsoa ematen zigan. Non eta Ermuan. Guk geuk ere ez genuen garbi ikusten asuntua.

Bi ahalegin esin eta gero, Euskal Birusako erreferentea, bilgunea eta produktu izana bihurtu zen Drogeteniturrri.

Beste ehun ale joan dira geroztik eta hemen dago gure artean senda eta dotore Orain be ez da denen gustokas izango. Hanka sartzeak izan eta izango dira auzeritzaen be. Beti esongo da hobetu beharra. Baina, Ermuko euskaldunen artean Drogeteniturrri hartutako leku garrantzitsua ukazina da. Euskararen berreskurapenean ezinbesteko tresna eta erreferentea bihurtu da.

Hori eustea da orain eronka. Eustea berritzea da, hobetzea, euskaldunen intzia eta behar berriak kontuan izatea alegia. Erantzukizuna handia da, irabazitako kapitala eta prestigioa tamaina berekoa delako. Premiak eta herimatan eskaerak ere gero eta handiagoak izango dira. Inguruko herimatan eskaerak astekarriak, egunkariak ari dira lantzen... Beraz, ez dago loak hartzenik, erutinan ibiltzenik, burukrazian jaustenik... guzti horien kontra, hasierako hartan izandako eztabaida teoriko, hausnarketa eta beroaldik ez lirateke orain be antidoto txarrak izango.

2003ko MARTXOA

Irene Ramos ermuarra, IMH-ko sariduna



Elgoibarko IMH-Makina Erremintaren Institutuak aurtengo sariak banatu zituen euren ikasleen artean ekainaren 18an. VIII. edizio honetan, Irene Ramos Cubillo ermuarrak jaso zuen '2010eko ikasle aipagarria' saria, espediente onena izateagatik, eta honi esker 800 eurotako ikasketa poltsa jaso du. Irene (1974n jaioa eta abokatua IMHn hasi aurretik), 'Ikasi eta lan' produkzio bidezko mekanizazioaren goi-mailako heziketa zikloko ikaslea da eta Abadiñoko

Industrias LAIPen dihardu lanean. 'Ikasi eta lan' sisteman ikasi duenez, 3 urtez aritu da lanean bertan eta formazioa bukatutakoan ere, bertan jarraituko du. "IMH Sarien helburua, ikasketa garaian edota ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ikasleei gure esker ona ematea da", azaldu dute IMHko arduradunek.

Lanbide Hastapeneko Zentroko matrikula zabalik

Ermua-Mallabiko LHZak datorren ikasturterako izenemate epea zabaldu du. Hiru espezialitateko prestakuntza eskainiko du: Ibilgailuen mantentze-laguntzailea, Industri mekanikoko langilea eta Ile-apaindegi eta estetikako laguntzailea, eta guztiak 2 ikasturtetan garatuko dira (2. ikasturtean praktikak egiteko aukera dago). DBHko graduaturik ez duten 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzat dago zuzenduta. Taldeak txikiak dira eta maila eta taldeei egokitutako eduki eta metodologia jarraituko da. Gainera, jarduera ludikoak, kultur edota heziketarako irteerak eta txangoak egingo dira. Matrikula uztailearen 15era arte egongo da zabalik eta doanekoa da. Informazio gehiago jaso nahi dutenek 943176422 telefonora deitu edo cip@udalermua.net helbidera mezu elektronikoa bidali beharko dute. Bestela Ermuko Udalaren Toki Garapeneko Sailaren bulegoetara jo beharko da (Torretan), 9.00etatik 14.00etara.

Postal Lehiaketan, sari ederrak!

Euskal Birusa Elkarte Kulturalak 2010eko Postal Lehiaketa martxan ipini du. Urtero bezala, oporretan zaudenean, postala bidali beharko duzu Euskal Birusara (247 posta-kutxara) posta zerbitzu arruntez. Postalean bisitatu duzun lekuaren deskribapena idatzi beharko duzu eta zure izena eta telefonoa agertu beharko dira. Postalak jasotzeko azken eguna irailaren 30ean izango da eta sari banaketa urriaren 16an egingo da, larunbatean, Lobianon. Lehen saria, bi lagunentzako asteburu pasa landetxe batean izango da; bigarrena, bi lagunentzako egun pasa Spa batean eta hirugarrena, bi lagunentzako afaria Mendiola jatetxean. Gazte txokoan, berriz, 50, 40 eta 30 euroko erosketa txekeak banatuko dira. Animatu!

ARANTZA TOTORIKA SARITUA UDAL LIBURUTEGIAN

Euskal Birusak antolatzen duen 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimenaren barruan, euskarazko liburuak maileguan hartzen dituzten irakurleen artean zozketa egingo du Udal Liburutegiak hilero, uztaileara arte. Lehen saritua Arantza Totorika izan da eta hiru liburu eta 30 euroko erosketa txekea jaso du. Txeketonekin, euskarazko liburuak erosi ahal izango ditu herriko liburu-dendetan.

SANTIXAUETAKO KARTELA

Ernesto Etxabek irabazi du aurtengo Santixau jaietako kartel lehiaketa, 'Ezin daiteke asperitu' izenburupean. Berrogeita sei urteko eibartar honek 600 euroko saria jaso du. Guztira 24 proposamen aurkeztu dira.

URBAN GAZTE JAIALDIA, 26AN

IV Urban Gazte Jaialdiak 'Batalla de Gallos' ekarriko du Ermura (18.00etan eta 20.00etan) eta Cirujanos hip-hop taldea (19.00etan). Gainera, 00.00etan 'Papiro... flexia' breakdance multimedia ikuskizuna eskainiko du Circle of trust & Logelak. Ekimen guztiak, Orbe Kardinalaren plazan.

★

BACKSTAGE
6 - 16 URTEKOENTZAKO ARROPA !
 Zubiaurre 30 • Ermua
 943 174 576

ALBOKA

MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikal
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI
 Ileapaindegia
 Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Yoga eskola

Sanatana Dharma
 * Arnasketa.
 * Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea • 943748593
 685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)

MARI CARMEN MUGIKA

- *Mari Carmen Montenekua, Herreronekua...*

Titulu guztiak izan ditut. Montenekua Bergaratik dator, gure aitxixaren aldetik, baserrikoa zelako. Herreronekua nire gizonaren aldetik dator.

- *Orain dela zenbat jubilatuz zinen?*

Bi urte, baina urdaitegia orain dela 7 urte itxi nuen.

- *Zenbat urte Herreroneko mostradorearen atzeko aldean?*

35 urte. Alargundu eta han hasi nintzen lanean.

- *Zer irakatsi dizu lan horrek?*

Gauza asko ikasten dira jendearekin harremanetan, baina 17 urte nituenetik aritu naiz horrela.

- *Urdaitegian egon aurretik, non egin zenuen lan?*

3 urte egon nintzen telefonista moduan Ermuan. Sasoi hartan klabijak erabiltzen genituen.

- *Zein oroitzapen dituzu?*

Egundoko urteak izan ziren! Nire ahizpa, lehengusina eta hirurok egiten genuen lana bertan. Herri guztiko jendea ezagutu nuen. Batez ere tailerretan zegoen telefonoa eta orduan tailer mordo zegoen Ermuan. Oso harreman ona geneukan enpresek eta bertako jendearekin. Giza psikologia asko ikasi nuen.

- *Gero urdaitegian...*

Bai, bi eskola izan ziren. Egia esan, bizitza bera da eskola.



Mari Camen Mugika Areition jaio zen duela 67 urte. Lau anai-arreben artean bigarrena da. Seme baten ama eta bi biloben amama. 35 urte egin ditu Herreroneko urdaitegian. Ermuar gehienek, Mari Carmen Herrero moduan ezagutzen dute. Duela bi urte jubilatuz zen eta orain arte bezala, bizitzari ahalik eta etekin handien ateratzen saiatzen da.

- *Lan horretan gustukoena?*

Jendearekin harremana. Oso ohituta egon naiz eta asko gustatu izan zait beti jendearekin erlazionatzea.

- *Jende askoren penak entzun behar izan dituzu?*

Mostradore atzean dagoen jende guztiak egiten du psikologo lana, eta gurea konfesatokia zen.

- *Urdaitegia utzi zenuen...*

Ezinegona sortu zitzaidan, zer egingo ote nuen hainbeste urte mostradore atzean egonda. Baina etxean ere nahikoa lan izan nuen, ez naiz aspertu.

- *Ogi bitartean?*

Txorizoa.

- *Nola gogoratzen duzu gaztaroa?*

Gorabehera askorekin.

- *Zer ikasi zenuen?*

Damaskinatua Eibarren.

- *Egun berezi bat zure bizitzan?*

Semea izan nuen eguna.

- *Zerk pozten dizu eguna?*

Bizirik egoteak.

- *Zerk ateratzen zaitu zure onetik?*

Gaur egun gauza gutxi. Ezin dut jasan jendeak ni manipulatu nahi izatea.

- *Aisialdian?*

Kartetan egin, lagunekin txikito bat hartu, irakurri...

- *Zer zaude irakurtzen orain?*

Che Guevararen liburua gainbegiratzen nabil.

- *Ermuko txoko gustukoena?*

Erdikokale. Bertan pasatu da nire bizimodua. Palazioko kaletik Herreronera aldatu nintzen. Lagunak Erdikokalen eduki ditut. Berrogei urte bizi izan naiz Erdikokalen.

- *Zure bertute bat?*

Baikorra naizela.

- *Akatsik...*

Bertute edo akatsa izan daitekeena: zintzotasuna.

- *Zerbait egin ez izanaren penarik baduzu?*

Erizaintza ikasi ez izanarena.

- *Egunero egiten duzu...*

Ura edan.

- *Berriro jaioko bazina, zer egingo zenuke?*

Berdina, nik bizitzari etekin handia atera diot.

Alazne Aiestaran

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)



Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

Javi Pérez, R. Sociadako idazkari teknikoa:

“Euskal Futbolarentzat ona da Reala igo izana”

Bigarren mailako futbol liga Txapelketa irabazi eta igoera lortu berritan hartu gaitu Realeko idazkari teknikoak. Ermuarra dugu bera. Eibarren eta Alavesen aritu ostean, orain dela urtebete iritsi zen Donostiako taldera eta denboraldi bikaina burutu eta gero, lehen mailara igotea lortu dute. Futbolaren mailarik gorenean arituko dira datorren urtetik aurrera. Ospakizunetan murgilduta, berarekin egon gara.

- **Igoera lortu duzue. Zer moduz?**

Oso pozik, erabat txoratu eta esan. Reala lehen mailara igozteko oso pozgarria izan da zaletu, jokalarik, talde eta oro har euskal futbolarentzat.

- **Zein zenuen gogoan igoera lortu zenutenean?**

Jende asko. Batik bat beti ondoan izan dudana emazte, seme-alabak, guraso eta asko sufritu duten jokalariek eta

lankide mordo bat.

- **Urtebete da etorri zinela. Zein izan da zure lana?**

Idazkaritza teknikoan egin dut lana Lorenzo Juarros 'Loren'ekin batera. Taldea osatu, egin beharreko fitxaketak egin, jokalarik berrien jarraipena, datorren denboraldia diseinatu..., horiek izan dira nire egitekoak.

- **Taldeak maila bikaina erakutsi du...**

Hiru urte eman ditu bigarren mailan eta aurtengo presioa handia zen. Mailaz igozteko zen hasieratik helburu nagusia eta azkenean ametsa egi bihurtu da. Denboraldia oso gogorra eta luzea izan da. Denboraldi hasieran, zalantza asko zeuden, jendea atsekabetua zegoen taldearekin, ilusiorik gabe. Denborarekin, lan ona egin ostean, gauzak bide onetik joan dira.

- **Zein izan da igoeraren gakoa?**



Ingurutik eta zaletuengandik mailaz igozteko grina gureganatu ez izana. Jokalariek eta entrenatzaileak batik bat, oso argi izan dute igoera lortu bitarte, lanean segi beharra zegoela eta hala egin dute. Aurtengo bigarren maila, sekula baino berdinduago egon da. Azken jardunaldira arte ez dira erabaki igoko edo jaitziko ziren taldeen izenak.

- **Datorren urtean lehen mailan...**

Azken urteotan etorkizunerako taldearen oinarriak eraikitzen ibili gara lanean eta uste dut urteetarako oinarria eraiki dugula. Lehen maila beste maila bat izan arren, egingo ditugun fitxaketek taldea osatu egingo dute, baina oinarria aurtengo taldea izango da.

- **Hainbeste ospakizunen**

ostean, oportetarako astirik baduzu?

Lan asko aurreratu dugu denboraldian zehar. Pare bat asteko tarte hartuko dut, baina denboraldi hasiera hilabete eta erdi eskasera hasiko zaigunez, berehala itzuli beharko naiz lanera.

- **Munduko Futbol Txapelketa jarraitzeko asmorik?**

Partidu guztiak grabatu eta aztertu egin beharko dira. Beti agertzen da jokalarik interesgarriena bat eta aukera ona eskaintzen du gure jomugan dauden beste zenbaiten lana aztertzeko.

- **Nor ikusten duzu favorito?**

Espainiako selekzioa beste gainetik dagoela uste dut. Kontuz halere Italia, Argentina eta Brasilekin.

Asier Ibaibarriaga

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42

“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEURUEKIN KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

Medellinen egun bat

... eta Alexek Medellineko auzo arriskutsuak ikustera gonbidatu gaitu. GKE-en logotipoa ondo ikusten den txaleko bat jarrita darama eta berarekin irten gara.

Hiriko erdigunean gaude, eraitsitako eraikin batzuk dauzkagu inguruan, kaleko umeak bertara sartzen dira droga kontsumitzera, metro batzuk aurrerago 14 urteko neska txak egoten dira prostituzioan, gehienetan amak derrigortuta.

Banda desberdinek gobernatzen dituzte auzoak, arrotzei dirua eta batzuetan bizitza lapurtuz. Uzkurtuta ematen ditugu pausuak, baina Alexek lasai egoteko esaten du, GKE-koei ez zaiela ezer gertatzen. Momentu hartan pentsatu nuen: eta norbaitek txalekoa ikusten ez badu?

Aurrera jarraitzen dugu, Bolivar parkera heldu arte. Asteburuetan turisten lurraldea da, artisautza merkatua egoten delako, baina astean zehar parkea sektoreka banatzen da. Alde batean trabestiak, beste batean agure pedofiloak kaleko umeen zain sexua edukitzeko, marihuaneroak eta kaleko umeak.

Parkea pasa eta ezkerretara egiten dugu, eta 16-17 urteko gazte talde batekin topo egiten dugu, heldu baino lehen Alexek auzoa gobernatzen duen banda bat dela esaten du. Gure ezusterako elkar ezagutzen dute, GKE-an ikasten egondako gazteak dira, orain delinkuentziatik bizi direnak; lapur profesionalak, sikarioak... Ate batetik gazte bat irteten da, 15 urte izango ditu, auzoko burua da eta inguruko auzoetakoei erail nahi dute, auzo hori eurenganatzeko. Apur batean berriketan egon eta aurrera goaz, kale



Ioritz Rasero Gizarte Hezkuntzako ikaslea

zabal batera helduz, bertan ingurua arakatzeko geratu gara. Trafiko asko, hotel txoak, polizi ugari eta neugandik metro bira, 12 bat urteko neska erdi biluzik, drogaturako aurpegia-ekin, gizon bila hotelen batera joateko 2 euroren truke.

Umeak beti erdian. Zerbait egin behar dugu, bizi hauek bide onean jartzeko, 20 urterekin hil ez daitezzen behintzat!

**Zerbait egin behar dugu
20 urterekin hil ez daitezzen**

www.joyeriasenen.com / joyeriasenen@gmail.com

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75



Ekainak 23
Zorionak Aita!!!
Zelako sorpresa, ezta? Musu bat Ainhoa, Maite eta Ama.



Ekainak 11
Zorionak Oier zure
2. urtebetetzean. Musu handi bat aitona, amona eta osaba Oscarren partez. Ondo pasa!!



Ekainak 7
Zorionak Ziriako
etxekoan partez.



Uztailak 23
Ixone sorgintxu, kontuz parrandarekin! Ondo pasau zeure 27. urtebetetzean. Muxu asko!

ALOKAIRUA

Calpen apartamentua alokatzen da. Hondartza parean. Garaje eta igerilekuarekin. Uztailean.
© 943171107

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
UZTAILAK 14

Elexosteko obrak direla eta, gure behin-behineko helbidea hauxe da: Errebalburu 1, behea. !!

laz bezala, Txikurixaren bitartez, Euskal Birusa Elkarte Kulturak auto-finantziazio handiagoa lortzeaz gain, Santixauetan euskarren presentzia areagotu eta, elkarteko bazkideen parte hartzea sustatu nahi du. Hori dela eta Santixauetako jai egunetan Euskal Birusak Txikurixa zabalduko du iazko leku berean.

Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide guztioi laguntzeko aukera luzatu nahi dizuegu, guztiona den elkartearen txosna izango baita.

Hona hemen, askoren artean, laguntzeko aukera ezberdinak:

- Prestaketa eta antolaketa lanetan lagunduz
- 3 orduko txandak eginez.
- Garbiketan lagunduz
- Eguerdietako pintxoetarako, patata-tortilak ekarriz...
- Zuen kuadrilako "erronda"n kontuan hartuz...

**SOR DEZAGUN JAI GIRO EUSKALDUNA
ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU!**

Laguntzeko prest bazaude, jarri zaitetz gurekin harremanetan emaitzez, euskalbirusa@euskalnet.net, edo 943179350 telefonora deituz.


**OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA**

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINTZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

T
XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

**Erdikokale 13
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK
943 030 299**

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika



**Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42**

SAGARDUI
bolsos

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

MALLABIA 1977


Argazkia 1977. urtean atera zen Madrilan, Athletic eta Betisen arteko finalean. Bertan agertzen dira ezkerretik eskumara: Bixente Amesti, Sabino Amesti, Javier Astarloa, Macario Biritxinaga, Jose Abendibar eta Pedro Arriaga.



ERMUA 1972



Uztailaren 10ean, San Kristobal egunean, Juanita Ibaibarriagak Muniozgurenen ateratako argazki honetan ume aldratxo ederra agertzen da. Ezkerretik eskumara, atzean: Enrike Totorika, Perdi Goiogana, Amaia Txurruka, Ana Mari Akasuso, Ikerne Zamakola, Mari Jose Goiogana, Gloria Akasuso eta Gaspar Akasuso. Ezker-eskuma, aurrean: Bakarne Zuazua, Rosi Goiogana, German Mugarza, Asier Zamakola, Alicia Mugarza eta Zorion Zamakola.



IKASTOLA
38 urte Ermua
euskalduntzen



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

LONDON

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

Maiatzaren 25ean Trafiko Legearen erreforma indarrean sartu zen. Espainiako Trafiko Zuzendaritza Orokorrak, lege berriak dituen berrikuntzak ezagutarazteko asmoz etxez etxe informazioa bidali du. Aldaketen artean, puntuen galera eragiten duten lege-hausteen kopuruaren jaitziera, ordainketa arinetan murrizketak eta lege-hauste berriak daude besteak beste. Zer dakizu Trafiko Legearen erreformari buruz? Zer deritzozu?

Informazioa etxera bidali ziguten eta begiratu nuen. Dakidanez, alkohol-maila jaitسي dute, isunak momentuan ordainduz gero % 50ean geratzen dira, puntu gutxiago kentzen dituzte kasu batzuetan edo ez dituzte kentzen. Egia esan, ondo iruditzen zait erreforma.



Mónica Dosantos. 30 urte. Langabetua.



José Luis Justo. 39 urte. Langilea.

Egunero mugitzen naiz lanera kotxez eta badakit zerbait. Lehen 27 arrazoi baziren puntuak kentzeko, erreformarekin 20 dira. Pentsatzen dut erreforma diru gehiago jasotzeko egin dela. Murrizketekin gutxiago ordaintzen denez eta zenbait kasutan punturik kentzen ez denez, jendea erlaxatu egin daiteke.



Zer edo zer entzun dut hedabideetan, baina gidabaimenik ez dudanez ez diot arreta handirik jarri. Uste dut erreforma gehiago dela dirua jasotzeko prebenitzeko baino.

María Ángeles Justo. 42 urte. Langabetua.

Ezer gutxi dakit egin diren erreformei buruz, etxera heldu da informazioa, baina ez dut irakurri. Badakit, momentuan ordainduta murrizketak daudela eta lehen puntuak kentzen ziren kasu batzuetan, orain ez direla kentzen. Ez dut uste erreforma dirua ateratzeko denik, eta gaizki egiten duguna zigortzea ondo ikusten dut.



Héctor Mateos. 25 urte. Langilea.

Gidabaimena ateratzen ari naiz eta gehiago jakin beharko nuke. Telebistan ikusi dut aldaketak egin dituztela, esaterako, lehen puntuak kentzen ziren kasuan orain ez direla kentzen. Txarrena da jendeak ez duela erreklamaziorik egingo, ordaindu eta kittol



Edurne Díaz. 24 urte. Ikaslea.



José Antonio Vecino. 43 urte. Langilea

Etxera bidali duten informazioa ez dut irakurri eta dakidan apurra hedabideetatik jaso dut. Badakit murrizketak daudela isunak ordaintzeko orduan. Ondo iruditzen zait lehenago ordaintzen duenari murrizketa hori aplikatzea.

Testua: Alazne Aiestaran

Quetzal
Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

HORTZklinika
nerea iñiguez

San Ignazio, 4 ERMUA

Uztailak 14, asteazkena
19.00: Orbe Kardinalaren plazan, soka-tira.

22.30: Betto Snay-ren hip-hop kontzertua. Valdespinako parkean.

Uztailak 15, osteguna
19.00: Pepino eta Artaburu jokoak plazan.
22.30: Kukubiltxo taldearen 'Mortimer' kale-ikuskizuna, Valdespinan.

Uztailak 16, ostirala
19.00: Dantza emanaldia plazan, Txindurri taldea.
22.30: Bertsolari jaialdia Valdespinan: Beñat Ugartetxea, Mikel Olaizola, Jone Uria, Odei Barroso, Ane Labaka eta Aitor Urrutia bertsolariak.

Uztailak 17, larunbata
9.00: Areto-futbol txapelketaren hasiera, kiroldegian eta Beti-Ondon.

9.30: 7 Futbola haur txapelketa Beti-Ondon.

10.00: Arku-tiro proba Orbe Kardinalaren plazan.

10.00: Urko 69etan ezetz! II. igoera kontrolatua, Patxi plazan.

11.00: Zabortege ohian Kolunbaire tiraketa.

11.00: Aldibereko xake partida azkarren XII lehiaketa plazan.

12.30: Umeentzako duatloi lasterketa, Orbe Kardinalaren plazatik hasita.

16.00: Herrien arteko xake partida azkarren XV lehiaketa San Martin plazan.

16.30: VIII Mus txapelketa herrikoia plazan.

23.30: Coti abeslariaren kontzertua San Pelaion.

Uztailak 18, igandea
9.30: Mendi-bizikletako XV herri martxa, plazatik hasita.

10.00: Areto-futbol txapelketaren azken fasea, kiroldegian.

11.30: Irratiz kontrolaturiko kotxeen 'Ermua Hiria' XIII txapelketa, San Pelaion.

16.00: Euskadiko txirindularitza txapelketa, Mallabirako errepidetik irtenda.

18.00: Musika, dantza jaialdia eta jaki tipikoen dastaketa, plazan.

Uztailak 19, astelehena
19.00: Txarangen triatloi jokoak plazan.

21.00: Herri ogitartekada plazan.

22.30: Txarangen abesti-lehiaketa plazan.



Uztailak 20, asteartea
19.00: Jatorrizko bekatua eta 'pringue' jokoak plazan.

22.30: Lusofonías taldearen fado kontzertua Valdespinan.

Uztailak 21, asteazkena
19.00: Soka-tira finala eta kubo jokoak plazan.

22.30: Sandra Rehderren tangoen kontzertua plazan.

Uztailak 22, osteguna
10.30: Buruhandiak plazan.

11.00-13.00 eta 16.00-19.00: Haurrentzako parkea eta tailerrak plazan.

17.00: Umeentzako txokolate jana plazan.

19.00: 'Parrandan' musika ikuskizuna umeentzat, plazan.

22.30: Kontzertua Valdespinan.

Uztailak 23, ostirala
18.30: Paleta txapelketaren finalak plazan.
22.30: Play-back lehiaketa plazan.

BESTELAKOAK

- Ekainaren 28tik uztailaren 11ra:

Argazki erakusketa: 'Vidas minadas'. Lanegunetan 18etatik 20etara. Jaiegunetan 12etatik 14etara eta 18etatik 20etara. Lobianon.

- Uztailaren 1etik 4ra:
San Pelaio auzoko jaiak: Hainbat ekitaldi.



- Uztailak 3:

Elektrojaia: dj-ak, perkusioa, ikus-entzunekoak, malabareak, gogoak, etab. 16etatik aurrera.

- Uztailaren 8tik 11ra:
Sallabente auzoko jaiak: hainbat ekitaldi.

Patxi López

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelajo, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb., 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net



ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS **ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

SERRAILAGINTZA

SEGURTASUNA **K21**

GILTZAK
SARRAILAGINTZA

- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen SALMENTA eta MANTENUA.
- Sarrailen EGOKIPENAK.
- Era guztietako giltzen KOPIAK.
- Segurtasun eta iheserako INSTALAKUNTZAK.
- Trabatutako atreak ASKATZEN ditugu.

Urgentzietarako ZERBITZUA:
943 701391
- 8etatik 24etara -

Arragueta 3 (Eibar) - 943 701 391
www.giltzak.com

TELEKOMUNIKAZIOA

Cable Spot

Zure antena TDTra egokitu.
ETEN ANALOGIKOAK GERTU DAGO!

- Antena kolektiboak
- Atezain automatikoak
- Telefonía mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea.
943 172314

**Gremioen Gidan
publizitatea jarri
nahi baduzu...**

**deitu
943 17 93 50**

edo 688 63 28 76

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

IKASTARO TRINKOA

IRAILEAN

Ikastaroa ►

1. Maila (1HE), 2. Maila (2HE) eta 3. Maila (3HE/EGA)

- Azterketak urrian
- Noiz: *Irailaren 1etik 28ra*
- Ordua: *9:00etatik 13:00etara (80 ordu)*
16:00etatik 20:00etara (80 ordu)

Matrikula epea ► uztailaren 13ra ARTE

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA (Teresa Murga eraikina, 2. solairua)
Tel.: 943170925 euskaltegia@udalermua.net

